

3.5.2. UDAL-ALORRAK. KULTURA ETA HEZKUNTZA. HEZKUNTZA.

UDAL-IKASTETXEAK

	2017-2018ko ikasturterako
Udaleko haur-eskolak	924
Joaquín Maya Musika Eskola	1.167
Catalina de Oscariz Udaleko Arte eta Lanbide Eskola	310

2017-2018KO IKASTURTERAKO HAUR-ESKOLEN MATRIKULA

Donibane Haur Eskola	101 haur
Goiz Eder Haur Eskola (lanaldi osoa).....	76 haur
Goiz Eder Haur Eskola (lanaldi erdia)	21 haur
Hello Egunsenti Haur Eskola (lanaldi osoa)	41 haur
Hello Egunsenti Haur Eskola (lanaldi erdia)	10 haur
Printzearen Harresi Haur Eskola.....	100 haur
Arrotxapea Haur Eskola (lanaldi osoa)	80 haur
Buztintxuri Haur Eskola.....	84 haur
Izartegi Haur Eskola	65 haur
José María Huarte Haur Eskola	43 haur
Mendebalde Haur Eskola	83 haur
Mendillorri Haur Eskola.....	97 haur
Hello Azpilagaña Haur Eskola (lanaldi osoa)	86 haur
Hello Azpilagaña Haur Eskola (lanaldi erdia)	36 haur
0-3 urte bitarteko 11 udal-eskoletan 924 haur daude guztira matrikula eginda.	

UDALAREN LAN-ILDOAK

IKASLEEK ESKOLA-INGURUNEA EZAGUTZEKO PROGRAMAK

IRUÑA EZAGUTU. Ikasleek gure hiria ezagut dezaten sustatzeko programa, Iruñearen historia eta hiri-bilakaera aztertuz. Ikastetxe publikoetako eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzendua dago.

Parte-hartzea: 2.078 ikaslek parte hartu dute, 39 ikastetxetako 180 ikastaldetan banaturik.

Bisita gidatu irekiak: programaren osagarri, beste talde batzuei irekita dauden bisita gidatuak egiten dira. 2017an, 2.626 lagunek parte hartu dute 115 taldeetan banatuta. Taldeek Alde Zaharreko hiru ibilbide historikoren artean aukeratzen dute: harresietan barnako ibilaldiak, Donejakue Bidea Iruñean, entzierroaren ibilbidea, ibilbide historiko edo hirigintza-ibilbide bat, eta hiriko auzoak ezagutzea.

ARTE-JARDUERAK SUSTATZEKO ETA IRAKURMENA HOBETZEKO PROGRAMAK

ANTZERKI-LANTEGIAK Haurrek dituzten adierazpen- eta antzezpen-baliabideak aberasteko programa. Hartara, teknikak ere irakasten zaizkie, besteekiko komunikazioa eta harremana errazteko, eta, era berean, beste curriculum-arlo batzuekin zerikusia duten ikaskuntza-prozesuak finkatzeko. Programa hau Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleendako da, dramatizazioa eta jolas dramatikoa landu ditzaten; halaber, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoendako da, txotxongiloen bidezko dramatizazioa landu dezaten.

Parte-hartzea: 2016-2017ko ikasturteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan, 87 taldek parte hartu zuten; 2017-2018ko lehen hiruhilekoan, berriz, 27 ikastetxetako 96 taldek. Programa Nafarroako Antzerki Eskolak kudeatzen du, berriaz deitzen den lehiaketa publikoaren esleipenduna baita.

IRAKUR DEZAGUN! Irakurtzea bultzatzeko animazio-programa, hiriko ikastetxe publiko eta itunpekoek topaketak egitea idazleekin eta ahozko narrazioei buruzko programak txertatzea, eta, baita aholkuak ematea ikastetxeetako irakasleei ere.

Parte-hartzea: 2017an, 274 jarduera egin ziren. Guztira, 9.074 parte-hartzaile izan ziren, Haur eta Lehen Hezkuntzako 41 ikastetxetakoak, Bigarren Hezkuntzako 24 ikastetxetakoak, Hezkuntza Bereziko 2 ikastetxetakoak eta Helduen Hezkuntzako 2 ikastetxetakoak. Programan hiru jarduera mota garatzen dira: irakasleendako mintegiak, oso egokiak liburuei buruzko aipamen eguneratuak emateko (iaz, 71 orientazio-bilera egin ziren); ahozko narrazio-saioak, hau da, munduko hainbat herrialdeetako herri-ipuak kontatzen dira (133 narrazio), eta topaketak egiten dira haur-literaturako idazleekin, eta, horren barruan, egile horien kontakizunak irakurtzen dira ikastetxera bisitan joan aurretik (70 topaketa).

LECXIT. Hezkuntza-arrakastarako irakurketa-programa. Ikasleen irakurmena hobetzeko programa aitzindari bat da; programa Lehen Hezkuntzako hurrekin batera irakurtzen duten boluntarioen laguntzan oinarritzen da. Astean behin, irakurtzeko espazio bat eratzea da Lecxiten jarduera nagusia. Bertan, Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailako ikasleek elkarriketa- eta irakurketa-aldiak partekatzen dituzte boluntarioekin, eta horrek ikasitakoa errotzen eta irakurmena hobetzen laguntzen die.

Parte-hartzea: Iruñeko Udalak programa hau 2017an abiarazi zuen zortzi ikastetxetan, 33 boluntariori esker.

TXALAPARTA-KONTZERTU DIDAKTIKOAK. Programa honen bidez, kontzertuko musikaz goza dezaten ez ezik, hiriko ikasleei aukera ere eman nahi zaie euskal kulturako tresna tradizional hau ezagut dezaten. Musikarien beraien azalpenen bitartez, txalapartak garaiotan izandako aldaketen berri jasoko dute, eta, ia oharkabeen, perkusioaren munduan murgilduko dira. Kontzertuetan musika-ibilbide bat egiten da, urratsez urrats, zeinaren bitartez 60ko hamarkadako txalaparta tradizionala eta txalaparta garaikidea uztartzen baitira. Txalaparta mota desberdinez gain, tobera eta kirikoketa azalduko dira ikuskizunean. Ikasleek galderak eginez parte hartzen dute kontzertuan edota agertokira boluntario gisa igoz.

Parte-hartzea: 2017-2018 ikasturteko lehen hiruhilekoan 10 kontzertu egin dira beste horrenbeste ikastetxetan; Lehen Hezkuntzako 1.174 ikaslek parte hartu dute horietan, eta 4.500 euroko gastua ekarri.

«EN MUDANZA-IBILTARI». Programa honek arte garaikidea Iruñeko ikastetxeetara darama, hau da, ikasleen bizi- eta ikas-lekura, beraieendako pentsatutako arte- eta hezkuntza-proposamen baten bidez. Era horretan, ikasleei arte garaikiderako zuzeneko hurbilketa, sentsoriala zein intelektuala, eskaintzen zaie; haien adierazpen-, dialektika- eta sormen-gaitasunak estimulatzen dira; eta diziplina anitzeko ikuspegitik lantzen ahal diren edukiak proposatzen zaizkie irakasleei (arte plastikoak, hizkuntza, zientziak...). Ekimen honen bidez diziplina anitzeko erakusketa txiki eta kolektiboak egiten dira, Iruñeko Udalaren Arte Garaikideko bildumaren jatorrizko lanak erabiliz; erakusketa horiek ikastetxez ikastetxe doaz ikasturtean zehar; zehazki, bi aste egiten dute ikastetxe bakoitzean.

Parte-hartzea: 2017-2018ko ikasturtean bi erakusketa hauek izan dira: «No soy piedra-Ez naiz harri», Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 12 ikastetxetako ikasleek ikusi eta landu dutena; eta «Lecturas naturales- Irakurketa naturalak», zeina martxoan jarri baita abian, eta 7 ikastetxetan ezarriko baita. Programa honek 4.620 euroko gastua du, 19 ikastetxe horietako ikasle eta irakasleekin egindako lantegiak direla eta.

BERDINTASUNEKO ESKOLAK «Iruñeko III. Berdintasun Plana. 2016-2022rako agiri estrategikoa» izenekoak, jardueren artean, «prestakuntza-proiektuak garatzea, sozializazio-sistemaren azterketa kritikoa emateko» proposatzen du, eta horrekin batera «rolen esleipen tradizionalaz sentsibilizatzea eta hori zalantzan jartzea, eta maskulinitate-eredu berriei buruzko gogoeta-guneak sustatzea; gazteekin bereziki». Lan-ildo hori betetzeko, 2016-2017ko ikasturtean «Berdintasuneko eskolak» programa abian jarri zen, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zein haien irakasleei eta familiei zuzenduta. Hala bada, zenbait saioen bitartez, honako hau egiten saiatzen da: ikasleen pertsonarteko harremanak, ikasgelaren barruan eta kanpoan, arautzen dituzten portaerak eta jarrerak ikusi eta aztertzea genero-ikuspegitik; haien jokabidea baldintzatzen duten rolak eta estereotipoak identifikatzea, haien bizi-proiektua eta pertsonarteko harremanak nola baldintzatzen dituzten gogoeta eginez; nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak ezagutzea, baita duten balorazio pertsonal eta sozial ezberdina ere, eta bi sexuen arteko enpatia bultzatzea; nagusi diren harreman-ereduak ikusaraztea eta horiei buruzko gogoeta egitea, sexismoa antzemateko eta horri aurre egiteko eta genero-indarkeria

aurkako jarrera aktiboa hartzeko; ikasgelan, irakasle gisa, tresnak edukitzea, ikastetxeetan hezkidetzako praktikak ezartzeko eta ikasleengan ikusten dituzten desberdintasun- eta bazterketa-egoera zehatzei heltzeko; eta familia-esparruan estrategia erantzukideak garatzea.

Parte-hartzea: 2017-2018 ikasturterako, guztira 14 ikastetxek eman dute izena programan; horrenbestez, batxilergoko 6. mailako 474 ikaslek parte hartu dute programan, eta 2.480 euroko gastua izan da.

LEHIAKETAK

XXVII. LITERATUR LEHIAKETA, Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren zikloko ikasleendako. Ipuina, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleendako, lau kategoriatan banaturik, ikasmailen arabera; eta, Komikia, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleendako, bi kategoriatan banaturik adinen arabera. Guztira, 529 lan aurkeztu ziren.

IKASKETA ETA ZERBITZUKO PROIEKTU DIDAKTIKOETARAKO SARIAK, Iruñeko ikastetxe publiko eta itunpekoetan ikasketa-zerbitzuko hezkuntza-proiektuak egin eta ezar ditzaten sustatzeko, bai eta hiri osoan ikastetxeen elkartasun eta gizalegezko konpromisoa ikusarazteko ere. Hezkuntza-etapa guztietan curriculum-eskakizun berak ez daudenez, eta proiektuak curriculum ikastea eta elkartasunezko zerbitzua lotu behar dituela kontuan harturik, parte hartzeko kategoria ezberdinak ezarri ziren euskaraz edo gaztelaniaz egin eta ezarritako proiektuetarako, ikastetxearen hizkuntza-ereduaren eta adinen arabera. Kategoria bakoitzean, lehen saria 1.500 euro, eta bigarrena 1.000 euro zen, halaber.

Lehiaketara 7 proiektu aurkeztu ziren, eta 2017-2018 ikasturteko bigarren hiruhilekoan garatu dira (2018ko urtarrila-martxoa).

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAK

ESKOLA-LIBURUTEGIAK ETA IKASMATERIAL SUNTSIKORRAREN GASTUAK. Hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako laguntzen urteko deialdia, liburutegien funtsa handitzeko eta ikastetxeek egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleei familiek eman ezin dieten materiala eman ahal izateko. Ikastetxe publikoetan guztira 8.944 ikasle egon ziren matrikultatuta 2016-2017 ikasturtean, gehi Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeko 930 lagun, eta banaturiko diru-laguntzen zenbatekoak 110.330 euro jo zuen guztira: 38.175 euro eskola-liburutegietarako, eta 72.155 euro, ikasmaterialerako; diru-laguntza/ikaslea erlazioa 5 euro eta 9 euro izan zen, hurrenez hurren.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako **ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA ETA JARDUERA OSAGARRIETARAKO DIRU-LAGUNTZAK,** eskola-eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntze aldera. 2017an, eskolaz kanpoko jarduerengatik, 164.980 euro eman ziren diru-laguntzetan; zehazki, 20.000 ikasle inguru dituzten 44 ikastetxeren artean banatu ziren.

GURASOEN ELKARTEETARAKO DIRU-LAGUNTZAK, gurasoek Haur eta Lehen Hezkuntzan antolatutako programa eta jarduerak gara daitezen errazteko. 2016-2017 ikasturteko deialdira 39 elkarte aurkeztu ziren, eta 65.000 euro eman zitzaizkien.